AGINDU TEKNIKOEN ORRIAK-GAIA. URDULIZKO UDALEKO KULTURA SAILAREN MENDEKO ZINEMA DIGITALEKO ZERBITZU PUBLIKOAREN EMAKIDA KONTRATATZEA

1. KLAUSULA.- KONTRATUAREN XEDEA, ETA ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

1.1. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Kontratu honen helburua da Urdulizko Udalaren Kultura Sailaren mendeko zinema digitaleko zerbitzu publikoaren emakida esleitzea.

Udal-zinema Urdulizko Kultur Etxeko aretoan eskainiko da. Aretoak honako elementu hauek ditu:

- Besaulki-patioa, 216 pertsonentzat.
- Agertokia
- Biltegi-trastelekua
- 2 aldagela
- Komunak
- Zinema digitala emateko behar diren proiekzio-sistemak.

Instalazioak bisita daitezke, baldin eta, gutxienez, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino 5 egun baliodun lehenago eskatzen bada.

1.2. KONTRATUAREN XEDE DIREN PRESTAZIOAK IDENTIFIKATZEKO KODEAK

Kontratuaren xedea honako kode hauen bitartez identifikatzen da:

CPV KODEA	Azalpena
1	92130000-1 Zinea proiektatzeko zerbitzuak
2	38652000-0 Proiektagailu zinematografikoak

2. KLAUSULA.- URDULIZKO KULTUR ETXEKO ARETOAREN PROGRAMAZIOA

Kultur Etxeko aretoan emango den zine-zerbitzuaren programazioa urriaren 1etik ekainaren 30era bitartean eskainiko da, larunbatero, arratsaldez, salbu eta Kultur Etxeak edo onartutako lagapenek emanaldiak eta ekitaldiak antolatzen dituztenean.

Esleipendunari aurretiaz jakinarazitako salbuespenak kontuan hartuta, zinema-programazioa bi multzotan banatzen da: umeentzako edo familientzako zinema, eta helduentzako zinema. Umeentzakoa aipatutako epeko larunbat guztietan eskainiko da; eta helduentzakoa, 2 larunbatean behin. Hauexek dira ordutegiak:

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfno. 94 676 20 61 – Fax: 94 676 42 40

- **Umeentzako edo familientzako zinema:** Aipatutako epeko larunbat **GUZTIETAN**, 18:00etan.
- **Helduentzako zinema:** Aipatutako epeko **BI LARUNBATEAN BEHIN**, 20:15ean.

Adierazitakoez gain beste saio batzuk ere eskaini ahal izango dira, betiere aldez aurretik Kultura zinegotziari idatziz eskatuta eta Udalaren aldez aurreko baimenarekin.

Sarrerak erosteko lehentasuna: zinemarako sarrerak erosteko lehentasuna izango dute Urdulizen erroldatuta dauden eta «Urdulizko Areto Txartela» txartela duten pertsonek. Horretarako sarrerak erosi ahal izango dira astelehen arratsaldetik (18: 00etan) asteazkenera arte (egun hau barne) aste horretan proiektatu beharreko filmetarako. Gainerako pertsonentzako sarreren salmenta ostegunean irekiko da.

3. KLAUSULA.- ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Kontratuak honako lan hauek izango ditu eginkizun:

3.1. FILMAK HORNITZEA

Umeentzako zein helduentzako filmak hornitzea. Filmon helburua izango da dagokion zinema-programazioa egitea, eta esleipendunak hilero bidaliko du programazioa.

Programazioan mota guztietako generoak sartuko dira, eta programazio komertziala eta kalitate egiaztatukoa bermatuko da, bai eta estreinaldi ofizialaren datatik hurbil dauden estreinaldiak ere.

Gutxienez, euskarazko film bat eskainiko da hilero: gaurkotasuneko filmen euskarazko bertsioak izango dira, edo jatorriz euskaraz ekoitzitakoak.

Zine-programazioaren berri Urdulizko Udaleko Kultura Sailari eman beharko zaio hurrengo hilabetea baino 20 egun lehenago, behar bezala zabaldu ahal izateko, Udalak egokitzat jotzen dituen informazio-kanalen bidez (Udalaren webgunea, Kultur bloga, etab.).

Esleipendunaren betebeharra izango da programatzea, kudeatzea eta programatu beharreko filmen alokairua ordaintzea, bai eta jarduera hau egiteak dakartzan lizentziak, eskubideak, publizitatea, zergak eta bestelakoak ordaintzea ere.

3.2. PROGRAMAZIOAREN PUBLIZITATEA:

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfno. 94 676 20 61 – Fax: 94 676 42 40

Esleipendunak, eskainitako programazioaren publizitatea egiteko, honako ardura hauek hartu beharko ditu:

a) Kartelak jartzea: Gutxienez, 3 egun lehenago, horretarako jarritako euskarrietan. Bertan, egunak, ordutegiak, oharrak eta abar azalduko dira, hizkuntza ofizial bietan, euskara nabarmenduz. Esleipendunak nahitaez eman beharko du titulu bakoitzaren kalifikazioa, adinka.
b) Udalaren web-orria: programazioa onartu ondoren, Biscaytik-era bidaliko da.

3.3. FILMEN PROIEKZIOA:

Proiekzioak barne hartuko ditu filmak kontratatzea, muntatzea, desmuntatzea eta garraiatzea; bai eta zerbitzua ondo emateko behar diren koordinazio-lanak egitea ere.

Enpresa esleipendunak kontratatutako langile teknikoa arduratuko da lanak egiteaz, eta filmek behar bezala funtzionatzen dutela bermatu beharko du.

Horretarako, aurrez aurreko ordutegi hau izango du:

- Larunbatetan, 17:00etatik 21:00etara (4 ordu)

- Gainera, helduentzako zinea ere programatuta dagoen egunetan, 21:00etatik 00:00etara (4 ordu) egon beharko du bertan.

Ezinbestez eman beharreko formatua zine profesionalekoa da, 4K kalitatekoa.

3.4. TXARTELDEGI-ZERBITZUAN ETA SARRERA-SALMENTAN LAGUNTZEA

Kontratuaren xedeak honako hauek hartzen ditu barne: langile teknikoak, bere lan-ordutegiaren barruan, lagundu beharko du txarteldegi zerbitzuan eta sarreren salmentan, Urdulizko Udalak zeregin horietarako kontratatutako langileekin batera. Era berean, laguntza eman beharko du sarrerak kontrolatzeko, edukiera kontrolatzeko, ikusleak kokatzeko, jendeari arreta eta informazioa emateko…

Zine saioaren ordez ekitaldi eszeniko bat (antzerkia, kontzertua, etab.) egiten bada, Udalak, salbuespenez, eskubidea izango du zerbitzua eskatzeko, eta, horrelakoetan, langile teknikoak deskribatu diren laguntza-lanak egin beharko ditu.

4. KLAUSULA.- LAN-TALDEA ETA BALIABIDE MATERIALAK

Aurreikusitako jarduerak ondo funtziona dezan, kontratistak behar diren langileak eta materiala eduki beharko ditu.

Ardura teknikoko lanak, berriz, honako hauek: zine-proiekzioa, muntaia, makinen mantentze-lanak, txarteldegiko laguntza, eserlekuak topatzen laguntzea, ikusleei arreta ematea zine-saioetan, kartelak jartzea…

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfno. 94 676 20 61 – Fax: 94 676 42 40

Laguntza teknikoko lanak, berriz, honako hauek: txarteldegiko laguntza, eserlekuak topatzen laguntzea, ikusleei arreta ematea zine-saioetan, kartelak jartzea…

Pertsona berak egin ahal izango ditu lan horiek guztiak.

Esleipendunak proposatutako langileek honako ezaguerak eta esperientzia egiaztatu beharko dituzte:

- Ardura teknikoko lanetarako, batetik, proposatutako makineriaren ezaguerak, eta, bestetik, zinema digitaleko proiekzioaren teknika. Beharginak, gutxienez, eta euskararen B1 mailaren titulu ofizialaren jabe izan beharko du.

- Zinema-zerbitzuari atxikitako langile guztiek, baldin eta adingabeekin ohiko harremana izatea badakarte, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa eduki beharko dute, hala ezartzen baitu urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak —adingabearen babes juridikoari buruzkoak—, 13.5 artikuluan. Ziurtagiri hori Udalari aurkeztu beharko zaio, bai kontratua gauzatzen hasten denean, bai langileak aldatzen direnean.

Zerbitzua ematen duten langileak esleipendunaren mendekoak izango dira, eta ez da izango inolako administrazio- edo lan-harremanik esleipendunaren eta Udalaren artean, ez kontratua indarrean dagoen bitartean, ez geroago.

5. KLAUSULA.- ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Baldintza teknikoen orrietan, administrazio-baldintzen orrietan eta ordezko arauetatik aplikatu behar direnetan ezartzen direnen kaltetan izan gabe, esleipendunak honako betebehar hauek izango ditu:

a) Urdulizko Udalean egiten den jarduera arautzen duten lege, administrazio eta zerga-arloko xedapenak betetzea. Besteak beste, SGAErenak, eskubide artistiko eta sormenezkoen estatu mailako elkarte edo baltzuenak, eta Kultura Ministerioarenak.
b) Zerbitzua, gutxienez, urriaren 1etik ekainaren 30era bitartean ustiatzea, salbu eta Udalak beste programazio edo ekitaldi batzuk antolatzen dituenean. Bestalde, Udalak beti izango du ahalmena instalazioa zertarako erabiliko den erabakitzeko edo, beste arrazoi batzuk direla-eta ixteko; besteak beste, beharrezko eta presazko obrak egiteagatik, segurtasun edo osasun publiko arazoengatik…
c) Hirugarrenei kalte-ordainak ematea zerbitzua ustiatzeko erabili diren instalazioetan sortzen diren kalteengatik.
d) Zerbitzua ematen den bitartean, lokala, instalazioak, altzariak eta lokal barruko gauzakiak zaintzea. Esleipendunak kontserbatzeko beharkizuna zabarkeriaz edo ardurarik gabe betetzeak eragindako kalteak konpontzea esleipendunaren kontura izango da, horien irismena edozein dela ere.

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfno. 94 676 20 61 – Fax: 94 676 42 40

e) Udalak lagatako aretoa filmak proiektatzeko bakarrik erabiltzea, salbu eta Udalak bestelako ekitaldiak proiektatzeko (opera, etab.) berariazko baimena eman duenean.

f) Giza baliabideak: aurreikusitako jarduerak ondo funtziona dezan, kontratistak behar diren langileak eta materiala eduki beharko ditu. Besteak beste, honako hauek dira erantzukizun teknikoko lanak: zine-proiekzioa, muntaia, makineriaren mantentze-lanak. Laguntza teknikoko lanak, berriz, honako hauek: txarteldegiko laguntza, eserlekuak topatzen laguntzea, ikusleei arreta ematea zine-saioetan, kartelak jartzea… Pertsona berak egin ahal izango ditu lan horiek guztiak.

g) Proiekzioei buruzko betebeharrak: Gutxienez, ezarritako ordutegia bete beharko da: txarteldegirako, eserlekuak topatzeko, aretoa zaintzeko eta proiekziorako. Bete beharko dira, halaber, lehenago aipatutako eginkizunak, bai zinea ematen denean, bai Udalak deitutako ekitaldietan.

Esleipendunak, gutxienez, eraikinean bertan eman beharko ditu txarteldegi-zerbitzua eta sarreren salmenta, betiere indarrean dagoen legeriarekin eta Udalaren orientabideekin bat

6. KLAUSULA.- UDALAREN BETEBEHARRAK

Plegu hauen xede den zine komertziala emateko ezarritako egun eta orduetan, Urdulizko Udalak esleipendunari lagatzen dizkio zine-aretoa, ikus-entzuleak sartu eta itxaroteko espazioak, proiekzio-kabina, txarteldegia eta helburu horretarako zerbitzuak. Urdulizko Udalak beretzat gordetzen du erabiltzeko eskubidea, zerbitzu-ordutegian, baldin eta Urdulizko Udalak programatutako jarduera eta ikuskizun guztiak egiteko beharrezkoa bada, edo nahitaez bete beharrekoa bada, betiere enpresa esleipendunari jakinarazi ondoren.

Udalak bere gain hartuko ditu espazio horien mantentze-lanen kostuak (garbiketa barne), bai eta hornidurek (argia, gasa) sortutakoak ere.

Udalak erabakiko du —bere eskumena da eta— zein diren txarteldegiko prezio publikoak, eta sarrerak saldu eta kontrolatzeko metodoak eta sistemak. Urtero onartuko den udal-ordenantza batek finkatuko ditu zine-saioen txarteldegiko gehieneko prezioak. Urdulizko Udalak enpresa kontratistari lagatzen dio diru-sarreren bilketa, eta Udalak zinema-programazioa eta zerbitzuaren funtzionamendu egokia gainbegiratu beharko ditu.

Udalak, jarduera ondo ibil dadin, behar den ebakuazio eta prebentzio-plana egingo du. Proiekzioak eta jarduerak egiten diren bitartean, aretoan lan egiten duten pertsonek planaren berri izango dute, eta, aretoaren funtzionamenduaz arduratu aurretik, esleipendunak prestatuko ditu, gaikuntza behar bezala ziurtatuz.

7. KLAUSULA.- KONTRATUARI JARRAIPENA EGITEA.

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfno. 94 676 20 61 – Fax: 94 676 42 40

Hitzartutako zerbitzua emateko baldintzak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko eta zerbitzuaren jarraipena egiteko, esleipendunak Udalari bidali beharko dio, formatu berrerabilgarrian, honako informazio hau:

- HIRU HILEAN BEHIN, MEMORIA bat, honako hau adierazita:
  - Euskaraz zein gaztelaniaz emandako filmak; eta saio bakoitzera joandakoen kopurua.
  - Egindako beste ekitaldi batzuk, eta bertara joandakoen kopurua.
  - Lortutako datuen araberako hobekuntza-proposamenak.
  - Filmak proiektatzeko zergak eta beharkizunak bete izana egiaztatzea.
  - Soldatak eta Gizarte Segurantza (gizarte-aseguruak) ordaindu izanaren frogagiriak.
  - Hala badagokio, zinearen zabalkunde-bitartekoetan publizitatu diren enpresak adieraztea.
- URTEAN BEHIN, MEMORIA bat, honako hau adierazita:
  - Txosten xehatua, eta, hor, zerbitzu-egun bakoitzeko, honako hau azaldu beharko da: ekitaldiaren izenburua, adin-kategoria, salmenta-bide erabilgarri bakoitzean saldutako sarreren kopurua, sarrera bakoitzaren prezioa eta guztizko fakturazioa.
  - Kalitate-adierazleak, emandako zerbitzuaren gogobetetze-adierazleak, eta aldatu nahiz hobetzeko proposamenak.
  - Erantzukizun zibileko aseguruari dagokionez, urtean behin aurkeztu beharko dio Udalari aseguru horren sariaren indarraldiaren frogagiria.

8.-. KLAUSULA. ONARTZEA

Aztertu dira Urdulizko zinema digitalaren zerbitzu publikoaren emakida —Urdulizko Udaleko Kultura Sailaren ikuskaritzapean dena— kontratatzeko agindu teknikoen orri hauek, bai eta baldintza berezien orriak ere, eta, horiek ikusita, Urdulizko Udalaren Kontratazio Organoak onartu egin ditu baldintza orriok.

Alkatea

Javier Bilbao Lopategui jauna

Firmado digitalmente por BILBAO LOPATEGUI, JAVIER (FIRMA)
Fecha: 2022.08.12 13:06:54 +02'00'

Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Tfno. 94 676 20 61 – Fax: 94 676 42 40